


III. ATALA

ERRAMUN BAXOKI ESKAINITAKO LANAK

>>>



Ipar Euskal Herrian, euskararen irakaskuntza eskaintzaren egituraketa. Metodologia, emaitzak, azterketak LEHEN EBALUAKETA BAT

Jean-Claude Hiriart
Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)

Urte anitzez, iparraldeko ikerlari eta idazle bakarrenetarik bat izan da Erramun Baxok soziolinguistika arloan. Euskararen aldeko zinezko hizkuntza politika baten eratzeko prozesu honetan, oinarri zientifiko eta tekniko baten beharra jakin izan du azpimarratzen eta frogatzen, kontzeptuak jorratuz, eta hainbat azterketa eta ikerketa lan bultzatuz. Ekoizpen balios eta ugari horiendako, milesker.

SAR HITZA

Hitzarmenezko eta zuzenbidezko esparru batean kokatzen den eginkizuna

Estatua, lurralde aginteak (Eskualdea eta Departamentua) eta ipar Euskal Herriko hautetsiak biltzen dituen Interes Publikoko Elkargoa da Euskararen Erakunde Publikoa, ofizialki 2004ko azaroaren 24an sortua izan dena tokiko askatasunen eta barne ministroaren aitzinean, euskararen aldeko hizkuntza politika baten definitzeko eta plantan jartzeko.

Erakunde bakarrean eragile instituzional guziak biltzen baititu, eta bide batez baliabideak bateratzen baititu, euskararen sustapenerako hizkuntza politika publiko elkarraditu baten garatzeko aukera ematen du antolaketa mota berritzaile honek.

Partaideetariko bakoitzak, euskarari lotu eremuetan dauzkan esku-menak aplika ditzake, erreferentziatzko esparru komun baten arabera, nork bere ekimena beste eragile publikoen jardueretik modu koherentean eraman dezan.

Hizkuntza politika eraginkorrenaren zerbitzuko den desmartxa esperimental honek hozka nabarmena gainditu du, 2006ko abenduan, Administrazio Kontseiluak guzien adostasunean hizkuntza politika proiektua onartu duelarik. *“Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun”* lema, datozen lau urteentzat, Erakunde Publikoaren orientabideak eta lan ardatzak finkatzen ditu.

Beste erronka batzuekin batean (hedabideak, lehen haurtzaroa, hizkuntzaren gizarte erabilera, sentiberatzea...), euskararen eta euskarazko irakaskuntza, hizkuntza politika proiektu honen muinean kokatzen da. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza gazte belaunaldientzat euskararen ikaskuntzarako tresna nagusia bilakatua baita gaur egun. Euskararen irakaskuntzaren eremua estrategikoa izanagatik dihardu bertan EEPk batetik **Hezkuntza Nazionala bere Administrazio Kontseiluaren parte baita** eta diruztatzen baitu, eta bestetik 2004ko azaroaren 26an **Kontseilu Orokorra eta Hezkuntza Nazionalak izenpetu hitzarmena dela medio**.

Hitzarmen honek **eginkizun bikoitza** esleitzen dio EEPri:

1. Elkar aditzerako dispositibo baten ANTOLATZEA

- Irakaskuntzako hiru sareetan, euskarazko eta euskararen irakaskuntza eskaintzaren garatzea eta egituratzea HELBURU
- Partaide publikoek martxan jarri beharreko politiken baitan ERAGINEZ

- Estatuaren eskuduntza eremuan: postuen kudeaketa, irakasleen formakuntza, klase irekitzeak...
- Tokiko aginteen eskuduntza eremuan: egoitzak, eskoletako langileak (irakasleak ez direnak)...
- Eskuduntza partekatuen eremuan: ikasmaterialgintza, familien sentiberatzea, eskaeraren neurketa, izen-emate prozedurak...

2. Irakaskuntzaren alorrean hartu orientabideen eta hizkuntza politikako beste eremuen arteko koherentziaren SEGURTATZEA

Bestalde hitzarmenaren eragilea baita, Euskararen Erakunde Publikoak hainbat eginkizun ditu:

- dagoen irakaskuntza eskaintzari buruzko informazioaren hedapena lagundu;
- tokiko hizkuntzei buruz (euskara) eta irakaskuntza elebidunaz, sentiberatze eta sustatze kanpainak antolatu;
- tokiko hizkuntzen (euskara) eta hizkuntzazko irakaskuntza eskaeraren aztertze inkestak antolatu;

Erakunde bakarrean eragile instituzional guztiak biltzen baititu, eta bide batez baliabideak bateratzen baititu, euskararen sustapenerako hizkuntza politika publiko elkarraditu baten garatzeko aukera ematen du antolaketa mota berritzaile honek.

Epe luzeko programazioa definitu zelarik, sare publikoak bere irakaskuntza eskaintza ipar Euskal Herrian 181 guneren harian egituratzen zuen. Gune hauen artean, 61ek irakaskuntza elebidun bat, euskara/frantsesa, proposatzen zuten.

— irakaskuntza eskaintzarentzat, epe luzeko programazio baten definitzea eta proposatzea, koherentzia bat, osotasun bat, eta ibilbide osoaren arian irakaskuntzaren jarraipen bat segurta lezakeena;

— hauek oinarri harturik, tokiko hizkuntzazko (euskara) irakaskuntza eskaintzaren karta bat proposatu, epe luzeko programazio batean egitura litekeena: irakaskuntza guneen kopuruaren finkatzea, eta beren kokapenaren hautatzea;

— epe luzeko programazioak iragarri guneen irekitzeak prestatu, elkarraditze lan bat eramanez egoitza eta altzarien diruztatzean eskudun diren tokiko aginteekin, familienganako sentiberatze lan bat eramanez, eta izen emate prozedura egokitu bat plantan jarritz;

— tokiko hizkuntzen eremuan diharduten elkarteekin eta batez ere hiru sareetako guraso elkarteekin elkarraditze esparru bat plantan jarri;

Tokiko hizkuntzen sailean, oraingoz Frantzian parearik ez daukan hitzarmen honek, elkarraditzerako eremu zabal eta zehatza irekitzen die eragile publikoei, bakoitzak dauzkan eskuduntzen banaketa aldatu gabe.

OBRATU BEHARREKO ORIENTABIDEEN DEFINITZE LANA

“Irakaskuntza eskaintzaren epe luzeko programazio bat definitu eta proposatu, eskaintzaren koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurta dezakeena, eta horretan oinarrituz euskararen eta euskarazko irakaskuntzen karta bat proposatu”. Hori zen dudarik gabe, hitzarmenaren izenpetzaileek Euskararen Erakunde Publikoari esleitu zioten eginkizunetan berritzaileena.

Lan alor hau da, 2005ean, lehentasunetan jorratua izan dena, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egoeraren argazki biziki zehatz bat egin izanaren ondorioz, ikasle kopuruka, eskualde geografikoka, irakaskuntza sareka (irakaskuntza Girstinoa, Publikoa, Seaska), irakaskuntza mailaka (eskola, kolegio, lizeo), eredu pedagogikoka (opzioa, oren partekotasuna, murgiltze sistema).

Honako hauek ziren diagnostiko horrek jakitera eman zituen elementu nabarmenak : ikasle kopuruaren ikuspuntutik euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren sendotzea 3 sareetan, irakaskuntza mota horren presentzia aldakorra eskualde batetik bestera, irakaskuntza ibilbidearen jarraipenean egon litezkeen hausturak (eskola/kolegio edo kolegio/lizeo), eta orohar oinarriaren urratsez urratsezko egonkortze bat partez 2. mailako irakaskuntzako ikasle kopuru urrien kausa dena.

Diagnostiko honetan oinarriturik, 2005eko abenduaren 20an, EEPko administrazio Kontseiluak Euskararen eta Euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioa onartu zuen, 3 printzipio bermatuz:

- Lurraldearen estaldura koherente baten segurtatzea;
- Irakaskuntza maila ezberdinen arteko jarraipenaren bermatzea;
- Familien hautu librearen bermatzea.

Lehen atal honek, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintzaren egituraketa eta garapena jorratu ditu soilik, **lehen aldikotz, eskaintza politika baten logika segituz.**

Dokumentu honek:

a) 2. Mailako irakaskuntzarentzat (Publikoa, Irakaskuntza Katolikoa, Seaska Federakuntza)

• Murgiltze eta sistema elebidunentzat kopuru **iragarpenak ematen ditu:**

- 2010-2011rako kopuruek gutxienez bikoiztu behar lukete (lehen mailako eskoletan jadanik dagoen oinarriagatik, egonkortzea aitzinikus daiteke)

• Beren harrera ahalmena emenda dezaketen eskolak, edo sail elebidunak sor ditzaketen eskola **begiztatzen ditu**, lurralde osoan CM2/6.aren arteko jarraipenaren bermatzeko:

- 2010-2011rako 10 eskolen harrera ahalmenaren bikoiztea (partez edo osoki) eta beste 8 eskoletan sail elebidun baten sortzea

• Irakasleen formakuntza mailako beharrak **identifikatzen ditu** datozen 5 edo 6 urteentzat, bilakaera honi aurre egiteko:

- Urtean 4 eta 6 posturen arteko batz bestea (20 eta 30 postu aitzinikusi behar dira orotara).

b) Estatuarekin kontratupean diren irakaskuntza pribatuko lehen mailako eskolentzat (Irakaskuntza Gristinoa eta Seaska Federakuntza)

• Partaidetza proposamen konkretuak **hitzartu dira** dauden guneen egonkortzeko eta berrien sortzeko:

- Postu banaketa irizpideak, irekitze proiektuentzat laguntza teknikoak...

• Lehen mailako postuen banaketa irizpideak finkatzen dituen Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko azterketa taula komuna **onarrarazi du.**

c) Lehen mailako eskola publikoentzat

• Gune berrien irekitzeko lehentasunak eta segitu beharreko urraspi-deak **definitu ditu:**

- Herriko etxeekilako harremanen lotzea, eskolen begiztatzea, familien galdekatzea...

Testu hau onartu denetik, bi urte baino gehiago iragan diren honetan, bi eskola sartze egin dira (2006 eta 2007) eta 2008koaren prestaketa lana untsa aitzinatua da. 2005ean **abiatu dispositiboaren lehen ebaluaketa bat** egin daiteke gaur egun, bide batez neurtu ahal izateko zer heinetaraino 2005ean definitu orientabideak obratu diren irakaskuntzako hiru sareentzat.

Ikastola berrien irekitzeko prozedura baten finkatzea elementu estrategikoa da, murgiltze sistema kontutan har lezakeen eskaintza baten egituratzeko helburuaren ikuspuntutik.

*Finkatu orientabideak,
urtez urte nola eta zer
heinetaraino gauzatzen
diren ebaluatzeko gisako
tresnak eratu nahi
baitzituen, EEPk
euskararen eta
euskarazko
irakaskuntzaren lurralde
estalduraren tasa bat
definitu du.*

I. LEHEN MAILAKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

Epe luzeko programazioa definitu zelarik, sare publikoak bere irakaskuntza eskaintza ipar Euskal Herrian **181 guner**en harian egituratzen zuen. Gune hauen artean, **61**ek irakaskuntza elebidun bat, euskara/frantsesa, proposatzen zuten.

Irakaskuntza elebidunik proposatzen ez zuten **120 gune**en artean, irekitze aukeren aztertzea erabaki zen honako toki hauetan:

- Irakaskuntza elebidun gutxien zuten lurraldeetan: BABen, Hiriburu eta Bidaxuneko eskualdeetan (hurbileko guneen identifikatzea);
- Eskaintza oparagoa duten lurraldeetan: ikasle ahalera azkarra luketen herrietan.

Lurralde hauetan, epe luzeko programazioan definitutako desmar-txa, **37** auzapezer aurkeztua izan zaie, **24** gune potentzialentzat:

- **9** gune potentzialentzat, auzapezekiko harremanek ez dute segidarik ukan, edo auzapezek gurasoen galdetegia gibelatu nahi izan dute;
- Euskararen Erakunde Publikoak, Herriko Etxekin partaidetzan, **15** inkesta eraman ditu, honako urraspide hauen arabera:

— Bi inkesta Baionako herrian:

- Inkesta bat 2006ko maiatzean, irakaskuntza elebidunik (euskara/frantsesa) eskaintzen ez zuten Eskuin hegiko 7 eskoletan. Eskuin hegiko zonaldean, bigarren gune elebidun baten irekitzeko aukeraren aztertzea zen helburua (aukerazko 5 gunetan):
 - . 331 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2.ean eta 3.ean);
 - . 173 erantzun (%52ko parte hartzea);
 - . 69 familiek, beren haurra sail elebiduneari sartzeko aitzinikusten dute (erantzunen %40a, inkestatuen %21a).

Herriko etxearekin elkarraditzean, Charles Malégarié eskolan dira begiztatuak, Eskuin hegian sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak.

Sail elebidunaren irekitzea 2006ko sartzean erabakitzen du Ikuskaritzak.

- Inkesta bat 2006ko urrian, irakaskuntza elebidunik (euskara/frantsesa) eskaintzen ez zuten Ezker hegiko eskoletan. Ezker hegiko zonaldean, Jean Moulin eskolaz gain, bigarren gune elebidun baten irekitzeko aukeraren aztertzea zen helburua (aukerazko 4 gunetan):

- . 260 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2.ean eta 3.ean);
- . 115 erantzun (%44ko parte hartzea);
- . 46 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeara aitzinikusten dute (erantzunen %40a, inkestatuen %18a).

Herriko etxearekin elkarraditzean, Albert I. eskola da begiztatua, Ezker hegian sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak eskaintzen dituelakoan.

Sail elebidunaren irekitzea 2007ko sartzearan erabakitzen du Ikuskaritzak.

— **Bi inkesta Miarrizteko herrian:**

- 2006 urtarrilean, inkesta bat, Alsace Lorraine ama eskolako gurasoei egina, irakaskuntza honen jarraipenaren segurtatzeko Therme Salin eskolako lehen mailan.

Herriko etxearekin elkarraditu ondoan, sail elebidun baten irekitzea erabaki du Ikuskaritzak 2006ko sartzearan, bien bitarteko egitura bat antolatzea beharrezkoa izan delarik.

- Inkesta bat 2006ko azaroan, euskara/frantsesa sail elebidunik ez zuten lehen mailako 4 eskoler egina, Reptou eta Alsace — Thermes Salins guneez gain, hiru garren gunelebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertze (4 kokagune aukeran):

- . 226 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2.ean eta 3.ean);
- . 88 erantzun (%41eko parte hartzea);
- . 34 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeara aitzinikusten dute (erantzunen %39a, inkestatuen %16a).

Herriko etxearekin elkar aditzean, Paul Bert — Michelet eskola da begiztatua, Miarrizteko hirian hirugarren sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak eskaintzen dituelakoan.

Sail elebidunaren irekitzea 2007ko sartzearan erabakitzen du Ikuskaritzak.

— **Inkesta bat Angeluko herrian:**

2006ko martxo-apirilean egina izan da irakaskuntza elebidunik Euskara/frantsesa proposatzen ez duten 6 eskoletan, Edouard Herriot-n eta Jean Jaurés eskolez gain hirugarren gunelebidun baten irekitzeko aukeren aztertze (4 kokagune aukeran):

- . 379 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2.ean eta 3.ean);
- . 201 erantzun (%53ko parte hartzea);
- . 56 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeara aitzinikusten dute (erantzunen %28a, inkestatuen %15a).

2007an, Euskararen Erakunde Publikoak irakaskuntza elebidunaren antolaketa kualitatiboa jorratu du batez ere, honen egituraketa lanean, irakaskuntzaren garapenean lortu Hezkunde Nazionalarekilako lankidetzaren kalitate bera lortu nahian.

Herriko etxearekin elkarraditzean, Evariste Galois eskolan dira begiztatuak, Angelun 3. gune elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak. Sailaren irekitzea 2007ko sartzean Akademia Ikuskaritzak erabakitzen du.

— **Inkesta bat Bokaleko herrian:**

2006ko abenduan, herriko 3 ama eskoletan inkesta bat eramana izan da gune elebidun (euskara/frantsesa) baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeko, gaur egun ez baita batere (3 gune aukeran):

- . 149 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2.ean eta 3.ean);
- . 79 erantzun (%53ko parte hartzea);
- . 39 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeari aitzinikusten dute (erantzunen %49a, inkestatuen %26a).

Eskola batean edo bestean sail elebidun baten irekitzeko aukerari buruz, inkesta honen argitara, Herriko Etxeak ez du oraino erabakirik jakitera eman.

— **Bederatzi inkesta ama eskola bat daukaten herrietan, sail elebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeko herriko eskoletan.**

Emaitzak ondoko taula honetan bilduak dira. Inkesta egiteko mementoan, gune ezberdinetan eskolatuak ziren haur kopuruak emanak dira.

Zenbait aldiz (herri ttipietan, landa eskualdetan...)inkesta zabaldu ahal izan zaie ondoko sartzean beren izena emaitzeko zuten ikasleei. Kasu horietan haien erantzun baikorrak ere kontutan hartu dira haur kopuruaren iragarpenetan:

Guneak	Ama eskolan eskolatu haurrak			Eskolatzekoak diren haurrak	Zenbatutako familia baikorren kopurua	Inkestaren ondorioz hartu erabakia
	Orotara dagoen haur kopurua	Erantzun kopurua	Irakaskuntza elebidun bat nahi duen familia kopurua			
Arbona	28	16	8	5	13	Irekitzea 2006ko sartzean
Bidarte	133	80	44	11	55	Irekitzea 2006ko sartzean
Getaria	19	19	15	4	19	Irekitzea 2006ko sartzean
HAEE Amorotze	24	20	9	6	15	Irekitzea 2006ko sartzean
Lehuntze	44	28	18	-	18	Irekitzea 2007ko sartzean
Urketa	48	28	16	-	16	Irekitzea 2007ko sartzean
HAEE Gabadi Amendüze	13	12	9	4	13	Irekitzea 2007ko sartzean
Oleta (Urruñu)	15	10	6	8	14	Irekitzea 2008ko sartzean
Urepele	14 (ama eskola + 1. maila)	11	2	3	5	Egingarritasuna ez frogatua
OROTARA	324	213	125	38	163	

Familier egin galdeketa **15 aldiz eramana izan da**, epe luzeko programazioa baieztatua izan denetik (bi urte eta erdi). Eta gehienetan, inkesta hau egin aitzinetik edo ondotik familier zuzendu informazio bilkurak egin dira, herriko etxe, ikuskari eta Hezkuntza Nazionalarekin lan-kidetzatza estuan.

Hainbat ondorio atera daitezke dagoeneko:

- Familier zuzendu inkestak eraman aurretik hainbat lanen betetzea beharrezkoa da: herriko etxeekin kontaktuak, informazio uneak zuzendariekin eta irakasle taldeekin... prestaketa urrats honen kalitate ona ezinbestekoa da irekitze proiektuaren lorpenerako;
- Kokapen bat baino gehiago proposatua delarik, eskaera badago batez ere haurra dagoen eskola berean egiten bada irekitzea. Familia guti da, bere haurra gunez alda lezakeena irakaskuntza elebidun bat segitzearen truk P eskaera potentziala, denetan bada, baina higikor-tasun urrikoa eta barreatua da;
- Eramandako 15 inkestetan, sail elebidunean haurra ezartzea pentsatzen zuen familia kopurua, 14 kasutan nahikoa izan da, irekitze baten justifikatzeko;
- Herriko etxeek baieztatu zituzten 13 irekitze proiektuen kasuan, aldi oro Hezkunde Nazionalak ondoko sartzean guneen irekitzeko baimena eman du (2006ko sartzea, 2007ko sartzea eta 2008ko sartzea);
- 2006 eta 2007an egindako irekitze gehienetan, irailean haurraren izena eman duten familien kopurua goragoa izan da, inkestan beren oniritzia eman zuten familien kopurua baino.

Guneak	Izen emate xedeak inkesta denboran	Gauzatutako izen emateak ondoko sartzean
Arbona	13	17
Bidarte	55	58
Getaria	19	21
HAEE Amorotze	15	20
Malégarie Baiona	15	24
T. Salins Biarritz	11	11
Michelet Biarritz	15	16
Albert 1er Baiona	21	35
HAEE Gabadi Amendüze	13	9
Lahuntze	18	8
Urketa	16	25
Evariste Galois Angelu	20	16
Orotara	231	260

II. BIGARREN MAILAKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

Epe luzeko programazioa hainbat gunetako zuzendarier presentatua izan zaie: Cassin lizeoa, Atharratze, Maule, Donibane Garazi, Baigorri, Kanbo, Hazparne, Angelu Endarra, Miarritzeko Fal eta Baionako Marracq kolegioak.

Horren ondorioz abiatu dira:

- Atharratze eta Mauleko kolegioetako zuzendariekin elkarraditzean eramandako azterketa lana, irakaskuntza elebiduneko eskaintza Atharratzeko ikasleei luzatzeko aukeren ikertzeko xedez.
 - Ikasle kopuruen azterketa, lankidetzaren baten lortzeko aukeren ikertzeaz, CM2tik landako orientatzeen azterketa Atharratzeko eskualdean....

Mementoko lan horrek ez du segidarik ukan eta arra bultzatzekoa da.

- Donibane Garazi eta Baigorriko kolegioetako zuzendariekin elkaraditzean eramandako azterketa lan bat, irakaskuntza elebiduneko eskaintza Baigorriko ikasleei luzatzeko aukeren ikertzeko.
 - Ikasle kopuruen azterketa, lankidetzaren baten lotzeko aukeren ikertzeaz, CM2tik landako orientatzeen azterketa Baigorriko eskualdean...

2006/07a arte, Baigorriko 6. eta 5.eko ikasleak Donibane Garazira joaten ziren euskarako klaseen segitzeko. Baigorriko kantonamenduko ikasleendako antolaketa iraunkor baten plantan jartzeko gogoeta aitzina doa.

- Elkarraditzean eramandako azterketa lan bat, Fal, Endarra eta Marracq kolegioetako zuzendariekin:
 - Kopuruen azterketa, epe luzeko iragarpenak jadanik dauden Fal eta Marracq-eko sail elebidunentzat, Angeluko Herriot eskolan inkesta Endarra kolegioan sail elebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeke.

2006ko martxoan eramana izan den azterketa honek 2006ko sartzearan irekitze baten gauzatzeko baldintzak hor ez zeudela agerian ematen zuen. 2007ko martxoan berriz eginik, lan berak kontrako ondorioa ezagutzera eman du 2007ko sartzera.

Azkenean Errektoretzak sail elebidun baten irekitzea erabaki du Endarrako kolegioan 2007ko sartzearan.

- Haurrak Hazparne, Kanbo eta Marracq-eko kolegioetako 3.eko klasean, sail elebidunean, dituzten familienganako galdeketa, Cassin lizeoan, 2006ko sartzearan sail elebidunaren irekitzearen egingarritasunaren aztertzeke.

Baionako Cassin lizeoko balizko sail elebidun bat elika lezaketen 4 kolegio publikoetan eramana izana da.

Emaitzak azterturik, Baionako Cassin lizeoan euskara/frantsesa sail elebidunaren irekitzea erabaki du Errektoretzak 2006ko sartzearan.

III. IRAKASKUNTZA KATOLIKOA

Onartu izan bezain laster, programazioa, Irakaskuntza Gristinoaren Departamentuko Zuzendaritzari (DDEC) aurkeztua izan zaio.

2006 eta 2007ko urteentzat, orduan irakaskuntza elebidunik eskaintzen ez zuten guneentzat irekitze berririk ez zuen aurreikusia Irakaskuntza Gristinoko Zuzendaritzak. Haatik BABko lehen maila eta bigarren mailako zuzendari eta irakasleei zuzendutako dozena bat informazio eta sentiberatze bilkura antolatu dituzte EEPk eta Irakaskuntza Gristinoko Zuzendaritzak elkarraditzean. Batez ere Baionan eskaintza bat plantan jarri nahi da, gaur egun ez baita batere.

Bestalde, lau egitasmo abiatu dira 2008an:

- Eskola Publikoentzat egin den bezala, gurasoen galdeketak eraman dira bi eskoletan.

Inkesta dokumentuak igorri aitzin, irakaskuntza elebidunaren funtzionamenduaren azaltzeko bilkurak antolatu dira, guraso, irakasle, eta eskola horien kudeantzan ari direnei zuzendua.

— 2007ko azaroan Barozeko Sainte Marie eskolako gurasoei egin zitzaien inkesta:

- 16 familia galdekatu ziren
- Erantzun kopurua: 16
- Beren haurra elebidunean sartu gogo duten familien kopurua: 6

— 2007ko urrian Donazarreko Saint Michel eskolako gurasoei egin zitzaien galdeketa:

- 13 familia galdekatu ziren
- Erantzun kopurua: 13
- Beren haurra elebidunean sartu gogo zuten familia kopurua: 12 (bainan horietan artean gehienek baldintza batzuk adieraziz)

Irakaskuntza Gristinoko Zuzendaritzarekin elkarraditurik, bi gune hauetan irekitzearen egingarritasuna ez da baieztatua izan 2008ko sartzearentzat.

- 2007ko eskola sartzean, Biarritzeko Sainte Marie eta Angeluko Stella Maris eskoletan, sail elebiduneko ikasle zaharrenak CM2ra (1. mailako azken urtera) heldu dira. Irakaskuntzaren jarraipenaren arazoa pausatu zen beraz, jakinez bi eskoletan kopuruak murriztegiak zirela bakoitzak bere 6.eko klasea irekitzeko.

EEP eta bi eskoletako zuzendaritzak elkarlanean ari izan ziren beraz euskarazko irakaskuntza uneetan bi klaseak batera zitzakeen dispositibo baten plantan jartzeko; frantsesezko irakaskuntzaren jasotzeko unean, ikasle bakoitza bere jatorrizko eskolan egon zitekeelarik.

Bi guneentzat irakaskuntza elebidunaren jarraipena segurtatzen zuen antolaketa bateratzaile horrek iraun zezakeen, gune bakoitzak klase elebidun baten sortzeko behar diren kopuruak ukan arte.

Prestakuntza lan hori eramanik, Errektoretzak bi eskolen artean funtziona lezakeen sail elebidun baten irekitzea erabaki du, 2008ko sartzera.

- Bestalde, gogoeta bat eramana izan da Uztaritzeko lizeo profesionaleko arduradunekin, 2009an irakaskuntza profesional elebidun baten antolatzeko. Eskola hori jadanik elebiduna den lizeo orokor eta tekniko bati juntatua zaio, eta proposatzen dituen honenbeste formakuntzatan euskara jakiteak abantaila bat ekar diezaike gazter bizi profesionalean sartzeko tenorean: saltzaile lanbideak, lehen haurtzaroko profesionalak...

IV. SEASKA FEDERAZIOA

Epe luzeko programazioaren baitan, ikastoletan ematen den irakaskuntza ereduaren berezitasunak kontutan hartzen dituen postuen kalkulatzeko formula bat proposatu zuen EEPko Administrazio Kontseiluak. Orduz geroztik, hainbat bilkuratan landu izan da proposamen hori Seaskako eta Akademia Ikuskaritzako arduradunekin.

Lehen mailako postuentzat abiatutako lan hori, emeki emeki beste gai batzuer zabaldu zaie, eta gaur egun partaide guzietan Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko akordio batetara heltzea dute helburu, modu honetan egitura litekeena:

1. Esparru juridikoa, eta ikastoletan indarrean dagoen antolaketa pedagogikoen azalpen bat;
2. Lehen mailako postuen banaketentzat kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak);
3. Federakuntzako 2. mailako 4 guneentzat, irakaskuntza baliabideen banaketei buruzko kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak);
4. Gune berrien irekitzeentzat, urraspide eta egutegiaren definizioa;
5. Hizkuntza gaitasunen ebaluatzeko urraspidearen definizioa, elkar aditzean obratu beharko dena.

Ikastola berrien irekitzeko prozedura baten finkatzea elementu estrategikoa da, murgiltze sistema kontutan har lezakeen eskaintza baten egituratzeko helburuaren ikuspuntutik.

Eskola publikoentzat eta irakaskuntza girstinokoentzat, sail elebidunak sortzen dira beti, lehenagotik existitzen den eskola batean. Ikastola baten irekitzeak berriz, arrunt eskola berri baten sortzea galdegiten du, eta horrek oztopo gehigarriak eragiten ditu: egoitzek eragindako kos-

tuak, elkarte kontratupeko eskolen sortzea arautzen duten koadroen murriztasunak eragindako oztopoak...

Testu hau idazten den une honetan berean, Akademia Ikuskaritza, Seaska eta EEP hitzarmen horren idazte lanetan ari dira.

Hezkuntza Nazionalarekin eraman diren prestaketa solasaldiek baieztatua dute Seaskak aplikatzen duen irakaskuntza sistemaren garatzeko zilegitasuna, baldin eta ofizialki neurtutako familien eskaera bati erantzuten badio.

Arte horretan, epe luzeko programazioa onartu denetik, bi ikastola berri sortu dira Baigorriin 2006/07ko sartzean, eta Erberuan 2007/08ko sartzean.

V. LURRALDE ESTALDURAREN BILDUMA ZENBAKITAN

Lehen mailako irakaskuntzarentzat




Finkatu orientabideak, urtez urte nola eta zer heinetaraino gauzatzen diren ebaluatzeko gisako tresnak eratu nahi baitzituen, EEPk euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren lurralde estalduraren tasa bat definitu du. Tasa horrek definitzen du, euskarazko irakaskuntza bat duten eskolen (oren parekotasuna eta murgiltze sistema) eta lurraldean dagoen eskolen kopuru orokorraren arteko aldea.

Eskolen kopuru orokorraren kalkulatzeko, Hezkunde Nazionalaren nomenklatura ofiziala hartzen da oinarri: ama eskolak, lehen mailak, ama eskola eta lehen maila batzen dituzten eskolak,... eta denboran zehar alda daiteke, eskola taldeen berrantolaketen arabera, Herri Arteko Eskola Elkargoen sorrerak...

Adierazle horrek erakusten du, zer proportziotan Iparraldeko biztanlegoak, eskura duen euskarazko irakaskuntza eskaintza. Eta erakusten du ere eskaintza hori zer erritmora hedatzen den lurraldean barna.

Argi da, azterketa hau, bizi eremuen heinera zehaztu behar litekeela: hiriguneak/landa-eremuak, irizpide soziodemografikoak...

Hezkunde Nazionalarekin daukan partaidetza estuaren ondorioz, adierazle horren segitzeko beharrezkoak dituen informazio estatistikoak eskura dauzka EEPk. Hau dela, adierazle horren bilakaera segitzen du 2004/2005az geroztik. Bilakaera horren emaitzak sintetizatuak dira, beheko taula hauetan:



2. mailako irakaskuntzari dagokionez:

Bigarren mailako irakaskuntzari dagokionez, epe luzeko programazioaren lehen atalak 8 eskola identifikatzen zituen, 2010-2011rako beren euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza aberats zezaketena.

3 eskola sartze iragan direla, helburu hau lortua da 4 eskoletan: 3 kolegio eta lizeo bat.

Beste hainbat gunetan abiatu gogoetek, oraindik pentsatzera ematen digute finkatu helburua betetzen ahalko dela.

Finkatu helburuen eta gauzatutako lanaren arteko aldearen neurketa erregularra ezinbesteko ariketa da, irakaskuntzaren eremuan, Hizkuntza Politika Proiektuko edozein eremurentzat bezala, abiatu desmartzaren egokitasunaren neurtzeko eta euskararen sustapen eta biziberritze lanean ari den gizarteko eragile ororentzat duen irakurgarritasunaren frogatzeko.

BURURAPENA

Euskararen Erakunde Publikoari zegokion, elkarraditze dispositibo iraunkor baten ANTOLATZEA, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza garatu eta egituratzea zukeena helburu.

Duela bi urte, euskararen eta euskarazko diagnostiko kuantitatibo bat idaztearekin abiatu zen eginkizun hau, hots Epe luzeko programazio-

aren aho bateko onartzearekin eta honen obratzearekin. **Eskaintzaren garatzean eta honen espazio mailako antolaketan** ari izan da beraz batez ere Euskararen Erakunde Publikoa.

Alor horretan eramandako egitasmoak eta hartutako ekimenek begiraturik, bilana baikorra da dudarik gabe.

Klase irekitzeen arloan, bere eskuduntza eremuan Hezkuntza Nazionalak hartu dituen erabakiak, Euskararen Erakunde Publikoaren orientabide eta ekimenekin koherenteak izan dira.

Bilan horrek abiatu desmartxaren segitzera gonbidatzen ditu partaide ezberdinak.

Alta, eskaintzaren zinezko politika baten gauzatze lanetan aipatu ditugun emaitza baikor hauek, ez dituzte beti hain baikorki ikusten irakaskuntzaren inguruan ari direnek, hots irakasle eta gurasoek, irakaskuntza elebidunaren antolaketa baldintza nekeak direla eta: antolaketa-ren konplexutasuna, klase bakarrean maila gehiegiren kudeatzeko zailtasuna, gaur egungo testuinguru soziolinguistikoan, finkatu hizkuntza gaitasunen lortzeko zailtasunak euskararentzat, irakasleen formakuntzan eskola elebidun baten berezko funtzionamenduaren kontutan hartze eskasa...

Hau dela, eskaintzaren garapenarekin aitzina segitzea estrategikoa baldin bada ere, 2007an, Euskararen Erakunde Publikoak irakaskuntza elebidunaren antolaketa kualitatiboa jorratu du batez ere, honen egituraketa lanean, irakaskuntzaren garapenean lortu Hezkunde Nazionalarekiko lankidetzaren kalitate bera lortu nahian.

Hori baita epe luzeko programazioaren 2. atalaren gaia, "euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa kualitatiboa" deitua, 2008 urtarrilean EEPko Administrazio Kontseiluak aho batez onartu duena. Dokumentu hau da, irakaskuntza alorrean, botere publikoek obratzekoa duten bigarren programa da, zorrotasun eta gardentasun osoz ebaluatu beharko dena.

Euskara eskolan: eskola gehiago, ikasle gehiago, eta hobekiago ikasi!

Lortu beharreko erronka nagusietariko bat da, euskararen bizi iraunkortasunaren segurtatzeko Ipar Euskal Herrian.■